

**DENOK BAT****Elkarrekiko eskubideak<sup>1</sup>**

Eskubideen inguruan hitz egingo da:

-Zer diren. Zergatik izan nahi ditugun. Eskubideak, zertarako?

-Eta betebeharrak? Zer dira? Zergatik izan behar ditugu? Zertarako?

Behin elkarriketa izan ondoren eta guztien iritziak entzunda (jaso esandakoa arbelean, kartoi mehe batean... ), dinamikari ekingo diogu.

Ikasle bakoitzari eskubideen fitxak banatuko zaizkio. Bosnaka jarriko dira eta taldeei eskatuko zaie idatziz jartzeko familian, ikastetxean zein gizartean haien ustez dituzten bost eskubide.

Gero, talde berean, eskatuko zaie identifikatzeko haien ustez haien familiek, gelakideek eta gizarteak berak dituzten eskubideak.

**MATERIALA:**

- ✓ Orriak eta arkatzak
- ✓ “Nire eskubidea da...” dioen orria
- ✓ “Besteek nigandik jasotzeko eskubidea dute” dioen orria

**NIRE ESKUBIDEA DA**

Etxean:

Ikastetxean:

Nire lagun taldean:



<sup>1</sup> Gizagune Fundazioa. Unitate Didaktikoa Elkargunea (3. Ziklorako). Moldatua.

**BESTEAK NIGANDIK JASOTZEKO ESKUBIDEA DUTE**

Nire familiak:

Nire gelakideek:

Nire lagunek:

Ondoren, idatzitakoa aztertu, eta honako galdera honi erantzungo diote: zer egin beharko genuke bai norberak dituen eskubideak bermatzeko, bai besteek dituzten eskubideak bermatzeko? (ideia-jasa).

Ahal bada, konpromiso batzuk hartuko dira eta idatziz jasoko dira, guztion sinadurekin, dokumentu batean.

Bigarren aukera bat da ikasleen eskubide eta betebeharrak aztertzea:

Dekretua: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/12/0806986a.pdf>.

Taulan dagoen laburpena ere erabil daiteke aztertzeko zer esan nahi duten eskubide bakoitzak eta betebeharrak bakoitzak.

IKASLEEN ESKUBIDEAK	IKASLEEN BETEBEHARRAK
Hezkuntza integrala izateko eskubidea.	Ikasteko betebeharra.
Ikasle adingabeek arreta berehala jasotzeko eskubidea.	
Ikasle adingabeek ikastetxearen babesa jasotzeko eskubidea.	Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.
Errendimendu akademikoaren balorazio objektiboa izateko eskubidea.	
Eskola- eta lanbide-orientaziorako eskubidea.	Bertaratzeko betebeharra.
Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonalerako eskubidea.	
Kontzientzia-askatasunerako eskubidea.	Bizikidetzaz errazteko betebeharra.
Ikastetxean biltzeko eskubidea.	
Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxean.	Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.
Ikasleek elkartzeko eskubidea.	
Parte hartzeko eskubidea.	Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.
Informazioa erabiltzeko eskubidea.	
Aukera-berdintasunerako eskubidea.	Instalazioak errespetatzeko betebeharra.
Gizarte-babeserako eskubidea.	
Ikastetxeak ikasleen eskubideak errespetatzeko eskubidea.	